

9. POETIKAREN MODERNITATEA: BAUDELAIRE-TIK SINBOLISMORA

Frantzian, 1830etik aurrera, subjektibotasun erromantikoari kontra egiten zioten joera literarioak sortzen hasi ziren, eta mendearen amaieran heldu ziren gorenera, alegia, berrikuntza poetikoko mugimendu nagusietara: **parnasianismoa** eta **sinbolismoa**.

Gérard de Nerval (1808-1855) eta Théophile Gautier (1811-1872) dira aitzindariak; ondoren Baudelaire etorriko zen, aurreko bien sintesia eginez. Baudelairek zabalduko zizkion atearik sinbolismo izeneko mugimendu berriari, hiru poeta nagusirengan (Verlaine, Rimbaud eta Mallarmé) sustraituko zena.

1. Baudelaireren aitzindariak: Parnasianismoa eta G. de Nerval

Erromantizismoaren eraginez, XIX. mendearen bigarren erdialderako samurkerian erorita zegoen poesia. Sentiberatasun belaxka horri aurka egiteko sortu zen parnasianismoa, eta poesia inpersonala eta forma landua proposatzen zuen. Subjetibismo erromantikoaren aurrean, objetibitatea kontrajarri zuten kanpo errealitatearen pertzeptzioan. Pinturara eta eskulturara jo zuten inspirazio bila, baita mitologiako gaietara (Grezia, Biblia) edo antzinate exotikoetara ere. **Leconte de L'isleren** (1818-1894) *Antzinako poemak* litzateke parnasianismoaren emaitzarik aipagarriena. Dena dela, parnasianismoaren ekarpenik esanguratsuenak, ondoren zetozen Baudelaire eta sinbolistei bidea irekitzea izan zen.

Alemanian bizi izan zen **Nerval** eta hango erromantikoen eragina jasan zuen. Nervalek errealitatea eta ametsa nahasteko joera zuen, gerora eromenera eta azkenean bere burua hiltzera eraman zuena. Eroetxean egonaldiak egin ondoren, 1855ean Parisko kale batean urkaturik aurkitu zuten. Nervalen literatur lan interesgarrienak hauek dira: *Kimerak* poesia liburuak, *Silvia* eta *Aurelia edo bizitzaren ametsa*, nobela poetikoak.

Frantziako erromantizismo belaxka eta sentiberari Alemaniako erromantizismo bortitz eta metafisikoagoa txertatu zion Nervalek, geroago Baudelaireren poesiak maisuki erakutsi zuen sendotasuna.

Nervalen laguna zen **Théophile Gautierrek**, 1836an argitaratu zuen *Maupingo neskatxa* liburuaren hitzaurrean "arteak arteagatik" edo *L'art pour l'art* teoria aurkeztu zuen: edertasun soila hartzen du arteak helburu nagusitzat. Beraz, artearen autonomia erradikala aldarrikatu zuen. Haren inguruan elkartu ziren artea erabilgarri izan ez zedin nahi zuten zenbait poeta. Erromantizismoaren gehiegikerien aurrean poesia neurtu eta aristokratikoaren alde egin zuen. Poesia formalista, materialista eta sentsualista idatzi zuen. Poesia parnasianoaren aitzindari izan zen; Baudelairek ere maisutzat hartu zuen. Nervalengandik eta Gautierrengandik abiatu ziren aipatutako bi joerak XIX. mendearen bigarren zati osoan eta XX.aren lehen zatira arte iraun zuten. Baudelairek bataren eta bestearen sintesi jeniala eta paregabea lortu zuen.

2. Charles Baudelaire

Charles Baudelaire (1821-1867) da XIX. nahiz XX. mendeko lirika modernoaren aita. Berarengan batu ziren aurreko bi joera poetiko nagusiak; eta artean ernamuinetan baino jaso ez zuena, sendotasun eta dotorezia paregabeaz garatu eta gainditu zuen Baudelairek, etorkizuneko poesia modernoaren gihar guztiak —Sinbolismotik Surrealismoraino— elikatuz.

1857an argitaratu zuen Baudelairek *Gaizkiaren loreak*, Modernitate osoaren poesia libururik ospetsu eta enblematikoa. Liburuak argitaratu eta berehala aurkako auzitara eraman zuten "moral publiko eta ohitura onei egindako irainengatik". 1853tik aurrera hasi zen idazten *Parisko Spleen*-a prosa poetiko eragingarria.



Hona hemen Baudelaire Modernitatearen asmatzailatzat jotzeko zenbait arrazoi:

a) Hiria, helburu artistiko

Baudelairek irudikatu eta hartu zuen aurreneko aldiz metropolia **-ziutatea** edo hiria, anonimotasunarekin lotua- helburu artistikotzat. Charles Dickensek eta, batez ere, E. A. Poek Baudelairek baino lehenago eman zioten metropoli horri izaki biziaren kategoria, baina fenomeno horretan poeta frantsesaren oharmena eta ondorioen intuizioa ezin zorrotzagoa da.

Hauek dira Baudelaireren hiriaren edo ziutate anonimoaren ezaugarriak:



- Ez dago iraganeko nekazari munduaren eta herri txikitako babes sentimentalik, elkar ezagutzetik zetorren harremanik. Hiri handietan sentimenduak erreprimitu, gorde egin behar dira, eta, horren ordez, adimena zorrotzu: kontua da funtzionala, bizkorra, praktikoa eta zorrotza izatea.
- Hiria da teknikaren eta negozioen bihotza: diruak objektibotasun berria, abstrakzio berria eragin zuen. Balioak dirutan ordaintzen dira: guztiak du prezioa.
- Gizakiak ezin ditu modu ordenatu batean bereganatu murgildurik daukan inpresioen zurrumbilo itogarria. Mundo fragmentario horren ondorioa izango da gertaeren aurrean gailendu ohi den indiferentzia (krimenak, istripuak, eskandaluak, miseriak .. .), edo espektakuluen aurrean (publizitatean, artean...). Ezer gutxik harritzen gaitu jada. Indiferentzia anonimo horretan "askatasun" estrefalario bitxienean entreteni daiteke hiritarra.
- Erabateko deserroketa. Hiri handietako bizilaguna "edozein parajetakoa" da. Ez dago iraganeko komunitateetako sustrairik. Hiriaren eztarri abstraktuek irensten dute bizilagunen nortasuna.

Baudelaire iritsi zen arte, hiri handietako anonimotasun berdintzaileari bizkar emanez bizi ziren intelektualak eta artistak. Berak bihurtu zuen hiri handia poesiarako gai. Berak irudikatu eta parekatu zituen Modernitatearen hiri handia eta izadi berria: asfaltozko jungla berria. Baudelairentzat Lurra, Izadia desagertu da: mundu klasiko eta erromantikoa, izadi zaharreko "barazki sakratu mordo bat" baino ez da. Beraz, aurrerantzean, izadiaren eta naturaren ezaugarri guztiek hiriaren anonimotasuna, kaosa, infinitua eta nihilismoa deskribatzeko balioko dute: lirika modernoaren hizkuntza goitik behera antzaldatu zuen Baudelairek. Eta imajinarioaren bihurkera horretan orain arteko balio tradizionalak ere antzaldatu zituen: Jainkoa eta Satan; Ederra eta Itsusia; Ongia eta Gaizkia; bekatua eta ordainketa...

b) Iheskortasunaren aldarrikapena

Garai klasikoan eta baita erromantikoan ere, artearen berezko balioa hilezkorra zen; hau da, ez zen ordu arte inoiz une iheskorrik hartu artearen kontenplazio gai. Baudelaireren denborak, berriz, ez du iraupenik: momentua, keinu iheskorra, instant isurikorra eta aldagarria du haren poesiak helburu. Arte klasikoaren kanonak eskatzen zuenaren justu kontrakoa.

c) Egunerokotasuna islatu nahia

Gero eta aldagarriagoa agertzen zitzaion Modernitatearen abiadura islatzeko, egunerokotasunari lotutako bizitasuna islatu nahi du haren poesiak.

E. A. Poerengana miresmen handia erakutsi eta haren ipuinen itzultzaile bikaina izan zen Baudelaire. Poeren "Gizasaldoko gizona" ipuinaz baliatu zen Baudelaire bere "flâneur" (begirazalea) edo kuxkuxero moderno irudikatzen. Hiri handietako giza multzoaren barrutik

begiratzen duen hori da artista modernoarentzat "heroi" berria, hirietako kalezulo amaigabeetan noraezean dabilen kurioa.

XX. mendeko ziatateetako epika berrian, kurioso hori "detektibe" bihurtuko da; hori bai, nobela beltzak kodigo etiko sendo batez babesturik famatuko du XX. mendeko detektibe.

d) Artistaren espiritualitate aristokratikoa

Dandia da aldagarritasunaren, esnobismoaren, momento iheskorren eta hutsalen heroi berria: ez da dandia bere itxurari edo dotoreziari gehiegizko arreta jartzen diona, ez; hori guztia beste zerbaiten adierazgarri da, artistaren espiritualitate aristokratikoarena hain zuzen. Baudelaire bera ilea urdinez tindatuta eta ganba bati soka batetik tiraka paseatzen zen Parisko kaleetan. Harengandik gaur egungo tximaluzeengana, oilar-gandordun edo kaskamotzengana ehun eta berrogeita hamar urte igaro dira.

ARROTZA

- "-Esadazu, gizon enigmatiko horrek, zer maite duzu zuk gehien?
 Zure aita, zure ama, zure arreba, zure anaia?
 -Nik ez dut ez aitarik, ez amarik, ez arrebarik eta ez anaiarik.
 -Lagunak, orduan?
 -Orain artean niretzat zentzurik izan ez duen hitz batez baliatu zara.
 -Zure aberria?
 -Ez dakit zein latitudetan kokatua dagoen.
 -Edertasuna?
 -Oso gustura maitatuko nuke, jainkosa eta hilezina.
 -Urrea?
 -Gorroto dut zuk Jainkoa gorroto duzun bezala.
 -Orduan, zer maitatzen duzu zuk, arrotz apart horrek?
 -Lainoak maite ditut... pasaka ari diren lainoak... hantxe... hantxe... laino zoragarriak!"

CHARLES BAUDELAIRE Itzulpena: B. Atxaga.

ILUNTZEA

HONA hemen iluntze atsegina, kriminalen laguna;
 Otso urratsez dator, konplize gisa; zerua
 Astiro-astiro hersten da, logela handiaren gisan,
 Eta gizon ezinegona basa animalia bihurtzen da,
 Oi, iluntzea, gau amoltsua, "gaurkoa ia kunplitu dugu"
 Gezur gabe esan dezaketen besoek
 Hain antsiatua! Gauak sostengatzen ditu
 Oinaze latzetan urratzen diren arimak, eta
 Burua ankertzen ari zaion jakintsu burugogorra, eta
 Oherantz doan langile makurra.
 Gainera, giro horretan, deabru kaltegarriak daude
 Eta, negoziante gisa, lizunki dabilza
 Eta, hegats egitean, teila izkinak eta leihatilak jotzen dituzte.
 Haizeak zalantzan ezartzen dituen argien artean
 Prostituzioa ari da iratzartzen kaleetan barrena;
 Xinaurritegiak bezala irekitzen dira gordelekuak;
 Alde guztietan marrazten da bere bide ezkutua,
 Etsaia erasotzeko zalantzan balego bezala;
 Eta lokatzez beteriko hiriaren erdian higitzen da
 Gizonari jaten duen guzia kentzen dion Hara bezala.
 Mila sukaldetako xistua entzuten da, nonahi,
 Teatroen ikara eta orkestren oihartzuna;
 Joko mahai xarmangarrien etxeak



Putek eta beren lagun estafadoreek betetzen dituzte;
Orduantxe doaz lapurrak, sekula bake
Ez atsedetik hartu gabe, beren lanetarantz,
Ateak eta diru kaxak bortxatzera,
Bizitzen segitzeko eta beren amoranteak hornitzeko.
Ai, arima, pentsatu egin behar duzu une larri horretan,
Ez entzun, ez amore eman oihu andanari.
Orduantxe larritzen dira erien oinazeak.
Gau ilunak eztarria hartzen die; halantxe
Amaitzen zaie patua, eta guztion leizera doaz;
Halako hasperenez beterik dago ospitalea. Bateren batzuk
Faltatu egingo dira salda lurrintsuaren orduan
Gauean, sutondo epelean, maitalearen alboan.
Eta gehienek ez dute sekula ezagutu
Etxearen gozotasuna, ez dute ezagutu bizitza!

CHARLES BAUDELAIRE Itzulpena: J. Sarrionandia

GALDERAK

1. Ziutatea eta gaua, gaua eta prostituzioa, gaua eta mozkorrak, kriminalak eta munstroak, gaua eta Satan. Aurki itzazu Baudelaireren poemetan paralelismo horiek. Zergatik gaua?
2. "Ongia"ren ala "gaizkia"ren artean zein aukeratu du Baudelairek? Zergatik uste duzu gertatu dela horrela?

3. Sinbolismoa

1885 inguruan Frantzia sortutako joera literarioak hartu zuen izen hori. Nahiz eta inoiz ez zen dotrina baten inguruan eskola gisa egituratu, Baudelaire izan zuten poeta sinbolistek aitzindari paregabea; eta Verlaine, Rimbaud eta Mallarmé izan ziren estetika sinbolistaren poeta aipagarrienak. Hauek dira Sinbolismoaren ezaugarri batzuk:

- Sinbolistentzat poesia eguneroko errealitateetik harantzago igarotzeko zubi zen; hitzak poetak aukeratutako sinbolo subjektiboaren euskarri dira. Sinboloak bi alde ditu: alde materiala (fonikoa), objektu errealak aipatzen dituena, eta alde intelektuala, hitzak esnatzen duen asoziazio mentala.
- Baudelaireren "Korrespondentziak" izenburua daraman poemak eskaintzen ditu poesia sinbolistaren filosofia ulertzeko klabeak, hau da, errealitatearen eta idealaren arteko harremana nola gauzatzen den, eta ahalegin poetiko horretatik zer ezagutza mota iristen duen poetak.
- Sinbolisten mundu poetikoa sinboloz zeharkatutako baso bat da, eta beren artean korrespondentzian daude sinbolo horiek, elkarri deika eta elkarri erantzuteko zain. Poetak bakarrik du baso sakratu horretako bide-zidorren klabea.
- Barne munduko oihartzun urrun eta misteriotsuak esnatzeko, eguneroko errealitateaz harantzagoko idealarekin komunikazioan jarriko gaituen baliabide nagusia musika izango da. Honakoa ez den beste errealitateari, Arimarenari darion musikaren oihartzunak esnatu behar ditu sinboloen bidez poesiak. Musikarena da lengoia gorena, Arimaren edo Izatearen batasunean eragina duten korrespondentziak jasotzeko gai dena. Poemen erritmo eta aliterazioen bitartez, bestela ahaztuak ziratekeen oihartzunekin taupadutzen da poeta.

Poeta sinbolisten arteko desberdintasunak nabarmenak badira ere, gauza batean guztiak datoz bat: ez dute gizarte burges eta eskasaren txalorik nahi. Benetan bizi izan zuten

marjinalitatea. Beren arteko asko -Verlaineren liburu baten izenburuari ohore eginez- poeta madarikatuak izan ziren.

Paul Verlaine (1844-1896) da frantses poeten artean lirikorik puruena. Hitz musika modernoaren aitzindarietako bat da. Poesia hobereetan bere aurrekoen erretorika handinahia hautsi zuen, eta frogatu zuen eguneroko esapideetan ere komunika zitezkeela giza sentipenen alderdi berriak. Hitzaren soinuen bitartez iradokizun maila handiko musika egin zuen. Ez zen Verlaineren poesia hobereetan eduki intelektual edo filosofikorik agertuko. Poesia arina, musikala eta itxurakeria gabekoa izan zen. Bere poesia libururik hobereena *Hitzik gabeko romanzak* da.

Rimbaudekin izan zituen harreman trumoisuek aparteko lekua betetzen dute Verlaineren biografian: 1871n Rimbaud poeta ezaguturik, emaztea eta seme jaio berria utzi, eta Frantzia, Belgikan eta Londresen ibili ondoren, liskar eta errieta ugarirekin, Verlaine bi tiro jo zizkion Rimbaudi, eta kartzelan sartu zuten bi urtez.

Arthur Rimbaud (1854-1891) literaturako mito bat da. Oso poeta goiztiarra eta oso epe laburreko poeta izan zen -laupabost urte-. Hamasei urte zituela, etxetik ihes eginda Parisen finkatu eta poetaren gogo-xedeak erakustera ematen zituen *Untzi hordia* poema ospetsua bidali zion Verlaine poetari. Verlaineren eskutik Parisko literatura giro bohemioa ezagutu zuen, jendea liluratzen zuela bere jeinu poetikoagatik (originala eta perfekzio paregabekoa) eta erlijioarekiko, gizartearekiko edota familiarekiko erakusten zuen erabateko ukoagatik. Errebeldea, biraolaria eta nihilista zen. Verlainerekin izandako harreman zakarra hautsi ondoren, Rimbaudek gizarte amoral berria eta poesia ez konbentzionala sortzeko ahalegin guztien porrota aitortu zuen *Denboraldi bat infernuan* eta *Argitzapenak* prosazko poema liburuetan.



Handik aurrera, literatura alde batean utzirik -artearen hogeita bat urte zituen- Europan zehar bidaiari ibili zen. 1880tik aurrera Etiopia aldera jo zuen eta arma merkatari gisa lan egin zuen. 1891n hil zen Marsellako erietxe batean, belauneko tumore batek jota. Hil ondoren zabaldu zen Rimbauden ospe izugarria.

Beste idazle sinbolista askorentzat ez bezala, poesiak harentzat "bizitza aldatzeko" tresna izan behar zuen. Rimbauden poetikaren oinarrian, abangoardiek eta Surrealismoak erakutsi zuten moduan, bizitza bera ere irauliko zuen proiektu bital bat zegoen: "Il faut être absolument moderne" ("Erabat moderno izan beharra dago") zen poetaren aldarri erabatekoa.

Stéphane Mallarmé (1842-1898). Bere obran erabateko edertasuna bilatzen du, poesia hutsa, gero eta itxiagoak bihurtzen diren poema batzuen bitartez, hitz poetikoa ez den guztia baztertzen joaten dena. Bere birtuosismoa dela eta, poesietako forma tipografikoa ere aldatzera iristen da.

Hala ere, bilatzen zuen "obra perfektua" egiteko ezinaz konturatzen zenez, bere azken urteetan oinazea eta depresio itzelak jasan zituen. Dena dela, sinbolistek hitzean zeukaten fedea abangoardien eta poesia modernoaren oinarri bihurtuko zen.

Galderak: POETIKAREN MODERNITATEA

1. Baudelaire: haren aitzindariak, eta poeta horren lanetan islatzen diren aldakuntzak, ezaugarriak...
2. Sinbolismoa: azaldu mugimendu honen funtsa.
3. Poeta sinbolista frantziarrak: izenak eta bakoitzaren estiloaren berezitasunen bat.
4. Apunteetako galderak: erantzun idatziz Baudelaire eta Rimbaud-en poemak ondoren datozen galderak (guztira, lau galderatxo).

UNTZI HORDIA

Ekaitzak ditu bedeinkatu nire esnaldi itsastiarrak.
Kortxo bano arinago ibili naiz dantzan uhin gainean

biktimen iraulikatzaille eternal derizten horietan,
hamar gau, kriseiluen begi ergelen damurik gabe.
Haurrentzat sagar mikatza baino gozoago,
sartu zen izeizko nire kaskoan ur muskerra
eta arno urdin orbanez eta goitikinez ninduen ikuzi,
sakabanatuz aingura ttikia eta lema.
Harrez gero, itsasoaren poeman bainatu naiz
asturuz isuria eta esne argitan argi,
azur berdeak irentsi beharrez, non zurbil eta lilurati
azaleratua, ito pentsakor bat jausten den aldiz.

A. RIMBAUD Itzulpena: M. Lasa

EGUNSENTIA (Lehen argitzapenak)

Udako egunsentia besarkatu dut.

Jauregien aurrealdean deus ez zen oraindik mugitzen. Hila zegoen ura. Itzaletako soroek ez zuten uzten oihaneko bidea. Ni nenbilen arnasa bizi eta epelak amets egiten; eta harri preziatuek so egiten zuten, eta hegalak altxatzen ziren hotsik gabe.

Lehenbiziko lorpena izan zen, distira fresko eta zurbilez josiriko bidexkan, bere izena erran zidan lore batena.

Pinuen artean ilea harrotzen zen urjauziaz irri egiteari ekin nion; zilarrezko tontorrean jainkosa ezagutu nuen.

Orduan banan-banan beloak jaso nituen. Zumardian, besoak agitatzen. Lautadan zehar, han salatu nuen oilarra. Hiri handian, kanpandorretan eta kululetan zehar ihes egiten nuen; eta beraren atzetik nindoan marmolezko nasetan eskale baten antzera korrika.

Bideko goitikoan, erramuzko oihan baten ondoan, bere belo metatuekin inguratu nuen, eta bere neurrigabeko gorputza pixka bat sentitu nuen. Egunsentia eta haurra oihan hondoraino erori ziren.

Iratzartzean, eguerdia zen.

A. RIMBAUD Itzulpena: J. Balentzia (moldatuta)

GALDERAK

1. Konpara itzazu Rimbauden poemak eta Baudelairerenak. Seinalatu parekotasunak.
2. Gogoratu Rimbauden biografia. Nola definituko zenuke bere jarrera: errebeldea, iraultzailea, eroa, suizida, kriminala ala artean jaiogabeko espezie berri baten iragarlea?

SINBOLISMOA ETA "POETA MADARIKATUAK"

Poeta madarikatuak ("Les Poètes maudits") Paul Verlaine olerkari frantsesaren saiakera liburu baten izenburua da. Liburuaren lehenengo bertsioa 1884an agertu zen eta 1888 bigarrena.

Bertan kalifikatibo horrekin sei poeta aipatzen ziren: Tristan Corbière, Arthur Rimbaud, Stéphane Mallarmé, Marceline Desbordes-Valmore, Auguste Villiers de L'Isle-Adam eta Paul Verlaine. Verlaineren iritziz poeta hauek modu batez edo bestez madarikazio bat jaso zuten eta, horren ondorioz, pertsona arruntengandik bereizi egin ziren. Egoera horren aurrean idazleok hermetismoaren bidea hartu omen zuten. Gizarte mailan gaizki ikusita zeuden eta, orokorrean, oso bizitza autosuntsitzaileak bizi izan zituzten, askotan drogekin eta eskandalu sexuarekin lotuta. Madarikatuen kontzeptua Alfred de Vignyren Stello liburuan agertu zen, 1832an. Bertan esaten zuen poetak, poetak izateagatik, lurraren botereek madarikatuak bihurtzen zituztela.

Baudelaire

Charles Pierre Baudelaire (Paris, 1821eko apirilaren 9a - Paris, 1867ko abuztuaren 31a) frantziar poeta, kritikari eta itzultzailea izan zen. **Poeta madarikatua** (Le poète maudit) deitu zitzaion, bizitza bohemioa eta gehiegikeriaz beterikoa izan zuelako eta munduarekiko ikuspegi negatiboa izan zuelako. Barbey d'Aurevilly kazetari frantsesak erran zuenez, Baudelaire "garai dekadente bateko Dante Alighieri" izan zen.

Sinbolismo frantseseko poetarik nabarmenena izan zen eta eduki zituen eraginen artean Théophile Gautier, Joseph de Maistre eta, batez ere, askotan itzuli zuen Edgar Allan Poe daude.

Duela 150 urte, 1857ko ekainaren 25ean, argitaratu zen *Les Fleurs du Mal*, mundu osoko literaturan erreferentzia den Charles Baudelaireren poema liburua.



1. Mozkor zaitez!

Egon beti mozkorturik
Horixe da dena
Horixe da garrantzitsua den bakarra
Zure sorbalden gainean,
Lurraren kontra makurrarazten zaituen
denboraren joanaren pixu astuna
Ez sentitzeko

Mozkor zaitez etengabe.
Zerez mozkortu ordea?
Ardoz, poesiaz edo bertutez
Zure gustura.

Eta noizbait jauregi baten eskilaretan
edo karkaba bateko belar berdeetan
edo zure gelako iluntasun izugarrian...
Esnatu eta mozkorra joan bazaizu
Galdeiozu haizeari
olatuari

izarrari
txoriari
erlojuari
hegan egiten duen orori
orroa egiten duen orori
mugitzen den orori
abesten duen orori
hitz egiten duen orori
galde egiozu ze ordu den

Eta haizeak olatuak, txoriak erlojuak
erantzungo dizu:
"Mozkortzeko ordua da!"
Denboraren esklabu martirizatua ez
izateko
Mozkor zaitez
Mozkor zaitez etengabe
Ardoz, poesiaz edo bertutez
Zure gustura

2. Albatrosa

Jolaserako arrantzaleak sarri
ehizatzen dituzte albatros ahaltsuak.
Ontziei, hegaka lasai
jarraitzen baitiete itsas amildegi
latzetan.

Zauriz josita ontzi gainera erortzean
(ortzeko erregeak ziren txoriak)
arraun apurtu batzuen antzera
narratz daramatzate hegal handietatik.

Gero hegadun bidaiari hauek

erabat galtzen dute edertasuna.
Honek mokoa bere pipaz ankerki
erreko dio,
hark herrenka antzeztuko bere
hegazkera.

Gezi-ekaitzen beldurrik ez duen
zeruetako printze honen antzera,
olerkariak ere samin artean hegan
dagite
lurrean itsatsita, ordea, ez diete ibiltzen
uzten hegal handiek.

3. Erraldoiemia

Bere inspirazio indartsuz egunero Naturak
haur eskergak sortzen zituen garaietan
neska erraldoi baten alboan bizi nahi nukeen
erregina baten oinetan katu boluptuoso baten
antzeria.

Bere gorputza arimarekin loratuz ikustea atsegin
zitzaidakeen
eta bere joko beldurgarrietan libreki haztea;
asmatzea ea bere bihotzak gar goibel bat txitatzen
duen
bere begietan igeri egiten duten laino hezeetan.

Bere forma magnifikoak astiro zeharkatzea;
neurrigabeko belaunetako malda eskalatzea
eta arduragabe bere bularren itzalpean noizbehinka
lo egitea,

mendi baten magalean herriska trankilaren antzeria,
udan, nekaturik, eguzki gaixotiek
bera zabalerazten dutenean landan zehar.



4. Etsaia

Ekaitz ilunbetsua besterik ez zen nire gaztaroa,
eguzki distiratsuek boladaka zeharkatua;
trumoiak eta euriak hainbeste suntsiketa eragiten dute
ezen nire lorategian fruitu heldu gutxi geratzen baitira.

Pentsamenduaren udazkena ikutu dut,
eta pala eta arrasteluak erabili behar dira
uholdeak itotako lurak bizi berritzeko
urak zuloak, hilobiak bezain haundiak, eragindako lekuetan.

Nork jakin amesten ditudan ernamuin berriek
hondartza bat bezain elkorra den nire lurretan topatuko ote duten
ernarazi egingo dituen jaki mistikoa?

Oinazea, Ah oinazea! Denborak bizitza jaten du,
bihotza marraskatzen digun Etsai iluna
hazi eta indartu egiten da guk isuritako odolaz.

Verlaine


5. Andrelagunak "Balkoian"

Bi andreek ikusten zuten enarek ihes egitea;
bata zurbila, azabatzezko ileekin, bestea ilehoria
eta arrosa; beraien urre zaharrezko txabusinak
lainotsuki sigi-saga ibiltzen, hodeiak, beraien inguruan.


Eta biek, asfodeleen ahuleriz,
ilargi bigun eta biribila zeruraino igotzen zen bitartean,
zaporazten zituzten gaingiroki arratseko zirrara
eta bihotz fidelen zorion goibela.

Horrela, besoak atxikitzen elkarri, umelak, kaizu zaluak,
bikote berezia beste bikoteek urrikaldurik;
horrela, balkoian, amets egiten zuten andre gazteek.

Beraien atzealdean, tarte aberats eta itzaltsuaren azkenekoan,
enfatikoa, melodramazko trono baten antzera
eta usainez josirik, ohantzea, hutsa, itzalpean irekiz.



6. Ipurtzuloaren sonetoa



Krabelin morearen moduan, ilun eta zimurturik,
goroldioan lotsati ezkutatuta arnasten du orain;
maitasun egin berriaz heze,
ipurmasaila zurien artetik jarioz.

Esnezko malkoen itxurazko izpiek
negar egin dute, haize goibelek bazterturik,
txintxar gorrixkazko odolbildu txikietan
erortzera deituta dagoen txokoan galtzeko.

Nire ahoa askotan batu da bere bentosarekin.
eta nire arimak, koito materialaz jeloskor,
bere sakonune basatia, bere zotinen habia, zulatu du.

Txunditutako uztaia da eta txirula mainontzia
“pralinè” zerutiarra jariatzen duen tutua da,
hezetasun berrien Kanaan emea.

7. Euria dagi nire bihotzaren gainera

Euria dagi
nire bihotzaren gainera.
Zer da tristezia hau
bihotzera barneratzen zaidana?

Oh! Hau euriaren hotsaren goxoa
lurrean eta teilatuetan zehar!
Asperten den bihotzarentzat.
Oh! Euriaren doinua!

Arrazoi gabe dago negarrez
nire bihozgabeko bihotz hau.
Zer! Traiziorik ez?
Dolumin hau arrazoigabea da?

Penarik gaitzena da
ez jakitea zergatik
Amodiorik gabe, gorrotorik gabe
nire bihotz hau dagoen horren
penatuta.

Rimbaud

8. Egunsentia

Udako egunsentia besarkatu dut. Jauregien aurrealdean deus ez zen oraindik mugitzen. Hila zegoen ura. Itzaletako soroek ez zuten uzten oihaneko bidea. Ni nembilen arnasa bizi eta epelak amets egiten; eta harri preziatuek so egiten zuten, eta hegalak altxatzen ziren hotsik gabe.

Lehenbiziko lorpena izan zen, distira fresku eta zurbilez josiriko bideskan, bere izena esan zidan lore batena.

Pinuen artean ilea harrotzen zen urjauziaz irri egiteari ekin nion; zilarrezko tontorrean jainkosa ezagutu nuen.

Orduan banan-banan beloak jaso nituen. Zumardian, besoei eragiten. Lautadan zehar, han salatu nuen oilarra. Hiri hundian, kanpaidorreetan eta kupuletan zehar ihes egiten nuen; eta beraren atzetik nindoan marmolezko nasetan eskale baten antzera korrika.

Bideko goitikoan, erramuzko oihan baten ondoan, bere belo metatuekin inguratu nuen, eta bere neurrigabeko gorputza piska bat sentitu nuen. Egunsentia eta haurra oihanaren hondoraino erori ziren.

Itzartzean, eguerdia zen.

9. Sentsazioa

Udako arrats urdinetan, bidexketan zehar nabil, galburuen sastadak pairatuz, belardietan arinik, noa ameslari, haien freskura oinetan susmatuz. Haizeak ingura dezala nire buru soila!

Ez naiz mintzatuko, ez pentsatzen arituko; mugarik gabeko maitasunak urrun narama, Naturan zehar oso urrun, ijito baten antzera, emakume bat ondoan banu bezala alaikiro.

10. Gaizkia

Egun osoz zeru urdin infinitoan zehar metraila karkaxek txu dagiten bitartean; irainka ari zaren Errege menpean, eskarlata ala berde, batailoiak suntsitzen direnean;

erotasan izugarri batek ehun mila gizon eho eta ke meta bihurtzen duenean oro, —gaixo hilok! udan, belartzan, hire zorion— ean izadi! hik, santuki sortu gizonok!

Badago Jainko bat, aldareetako oihal landuetan intzentzu eta urre kaliz handietan, barre dagiena; Hosannen eraginetan loak hartzen duena,

eta iratzarturik, larrialdian bildutako amek, kofia beltz zaharretan estalirik negarrez, ematen dietenean sos bat musuzapian gordea.

11. Neguko ametsa

Neguan, burko urdindu bagoi arrosa txikian abiatuko gara zein ederto, biok batera. Musuz beteriko habiak kokatzen dira hango izkina amoltsu bakoitzean.

Begiak itxiko dituzu

ez ikusteko leihotik keinu eta espantu, ilunabarreko itzalak munstro nazkagarriak, deabru eta otso beltz andana espantagarria.

Gero zure aurpegian azkura sumatuko duzu



muxu txiki bat,
armiarma zoro bat bezalako,
zure lepoan korrika.

Eta burua makurtuz,
esango didazu:

—«zoaz bila»
—Eta xomorrotxo
aurkitu bitartean
izango dugu astia
—hain baita ibiltaria!

12. Izarrak negar arrosa...

Izarrak negar arrosa egin du zure belarri barruan,
Infinitoak zuri errodatu zuen zure lepotik gerrira,
itsasoak perla gorritz jantzi ditu zure bular gorrixkak,
eta Gizonari odol beltza dario zure saihets subiranoan.

13. Ibarreko lotia

Zelaigune berde bat dago, bertan erreka bat ari da
kantari, zilar litsak belarretatik zintzilika zoroki;
bertan eguzkiak, mendi goitik, argia ematen du:
sakonune bat da, errainuz josia.

Gudari gazte bat, ahoa zabalik, burua biluzik
eta garondoa ira fresko urdinetan bustirik
lo dago; belarretan etzanda,
zurbil, bere ohe berdean argiaz blai.

Gladiolo artean oinak, lo dago. Barre
antzean
haur gaixo baten modura, lo kuluskan ari da.
Izadi! kulnka ezazu zure altzo beroan;
hotzez baitago.

Lurrinak ez du eraginik bere usaimenean;



eguzkitan lo datza, eskua bular gainean,
trankil, zulo gorri bi ditu saihetsaldean.

Mallarmé

Frantses olerkaria (Paris, 1842 - Valvins, 1898). Mallarméren bizitzak ez du, gorabehera handirik. Probintzietako bizitza beti-berdina, eta funtzionario lanpostu apala izan ziren haren bizitzako gauzarik aipagarrienak. Ingalaterran egonaldi bat egin zuen ingelesa ikasteko eta Frantziara itzuli zenean, ingelesa irakasten aritu zen lizeoetan. 1871n, Parisen finkatu zen. Baudelairek eta Poek eragin handia izan zuten Mallarméengan. 1864. urte inguruan hasi zuen *Hérodiade* poema dramatikoa; han, Baudelairek ez bezala, sentipenetan ez baino adimenean bilatu zuen mundu ideala. 1967an *Igitur, ou la folie d'Elbehnnon* (Igitur, edo Elbehnnon-en eromena) obra hasi zuen (1925ean argitaratua). Eragin handia izan zuen bere garaiko idazleen artean. 1876an *L'après-midi d'un faune* (Fauno baten arratsaldea) argitaratu zuen. Olerki horretan, ametsen mundua eta absolutua irudikatze bidea da sinboloa. Errealitatea baino areago, bada Mallarmérentzat hutsune bat, gauza guztien esentzia biltzen duena, eta olerkariaren betebeharra da errealitateak ezkututzen dituen esentzia horiek agerian jartzea; horretarako hizkuntza trinko esanguratsua erabili beharra zegoen, eta hori izan zen haren ardura nagusia. 1897an, *Un coup de dés jamais n'abolira le hasard* (Dado jokaldi batek ez du sekula halabeharra abolituko) izeneko poema argitaratu zuen,

sintaxi eta idazkera arrunta alde batera uzten dituen. Handik urte betera hil zen, urteetan agindu zuen liburu absolutua bukatu gabe.

14. Larrimina (Angoisse)

Gaur ez nator zure gorputza mendean hartzera, piztia hori!
Herri oso baten bekatzuz bete hori!

Ez eta ekaitz tristerik zure adats
likitsean landatzera
Nire ezpainei darien asperrezia
sendagaitzapean
Zure oheari oinazetik gabeko loa
aldarrikatzen diot
Zure engainuaren ostean, leher
eginda, egiten duzun lo bera,
Damu ezezagunaren teloiaren
atzeko loa,
Zuk, hildakoez baino hobeto
baitakizu zer den ezereza.

Zeren bizioak, karrazkatu baitu
nire sortzezko zintzotasuna.
Bere antzakeriak, zu bezala, neu
ere markatu bainau.
Baina, zure harrizko erraietan
krimenen hortzek zauritzen ez
duten bihotza bizi den bitartean,

Nik, zurbil, lurjota, heriotzaren
beldurrez,
Nire hil-mihiseak obsesionatuta,
ihes egiten dut.
Bakar-bakarrik oheratzen
naizenean



Poemen atonketa/euskaratzea: I. Goienaga

